

## Baratxuri-zopa

TXILLARDEGI



### OLABARRI.

Madriko Gorteetako batzordekide. Arzalluz eta Ardanza, Madriko aretoetan gora eta behera. PNVa, Madriko Gobernu espainolean burukide bihurtzeko bezperan. Felipe Gonzalezek nahiago izan du PNVa, Izquierda Unida baino. Noski!

Pujolek atzera egin du. Pujol katalana da. Eta gogoan dauka 'Lliga Regionalista-ren' arrastoa; baita honen ondorioz posible izan zen 'lerrouxismoa' (gure adinekoek 'fejipada' esan ohi dugu). Gaur garbi dago Madriek bidali zuela Barcelonara sasi-ezkerter hura; urte batzuz lehenago Moskuk Helsinkiara Bobrikoff bidali zuen bezalaxe.

Pujolek badaki Prat de la Riba eta Frances Cambó nor ziren. (Eli Gallastegik ere bai, jakina: ongi zekien).

Eta Pujolek atzera egin du. Azkeneko mementuan bederen. Arzalluzek ez. *PNVak Madriren egon nahi du*, osoki, bete-betean. Arzalluzek Azkoitiko Cambó izan nahi du. Hark bezala, azkoitiarrak espainiar legetasuna maite du, burgesia, dirudunen giroa, eskuindakaria, 'intervencionismoa' (buru-belari espainiar arazoetan lepezurerraino sartzea). Eta F. Cambó bezalaxe, PNVA 'anti-separatista' da, anti-abertzalea, espainolista. 'Bestela organizatutako Espainiaren aldekoa', 'Lliga-zaleek' zioten bezala. Baina Espainiaren aldekoa.

Eta badu jarraitzaileak. Nor? Euskal karlistak umezurtz utzi dituen karli guztiak. Ez baita gutxi, zoritzarrez!

Cambó, Prat de la Riba, Pujol bera, *katalanistak* dira hezurretaraino. Gure karkak ez dira euskaltzaleak. Eta horregatik egun hauetan Madriren 'egosten' ari den guztiak, kirats usain ikaragarria du. Jendilaje horiek *Euskal Herriaren ehortzeta* ari dira prestatzen gure begien aurrean.

Kontestu horretan, eta Gernikako 'kantaldi' historiko haren ondoan, zer adierazten du azkeneko abertzaleen 'errege-ikusaldiak'?

### ● SUB OUEST

#### Goresgarria

Oraindik ere ba al dago herri honetan ezkerreko oposizioirik anekdota gisa ez bada? Eta baiezkoan, non dago? Eliseon, erantzungo dute Estatuko burua etengabe lausengatzen dutenek. Alderdi sozialistan, esango dute Lyongo estatu orokorretan parte hartzen ari direnek, kontent oraindik eztabaidatzeko gauza den alderdi bat berraurkitzeagatik. Batzuk eta besteak pozik egongo dira beren pentsamenduzko familia bizitzarekin adiskidetu egin dela ikustean. Baina alaitasuna iraupen gutxiokoa izan daiteke. Harrigarria litzateke PSK bere barne auziei amaiera eman izana, eta hurrengo hilabeteetan Michel Rocard garaila gora goratuko balute, horrek esanahi bakarra luke: anaia etsaiek, lehendakartzarako zita galduta dagoela jakinik, porrotentz alai korrika egiten utziko dutela.

JEAN-FRANÇOIS BEGE

### ● EL MUNDO

#### Euskal bozeramailea

Gasteizko Gobernuak Sainz de la Maza, Carmelo jauna, izeneko bozeramaile bat dauka. Jaun honek adierazi berri du ez dakiela ezer Kas-

## HEMEROTEKA



(Herioiak hemen dira. Gaur: Maskaradun gerlaria.)  
— Badakit beste gaitzike batzuk daudena. Baina zeu nahiago zaitut!  
— To, mairu traïdore horrek!

FERRERES / LA VANGUARDIA

hagi *Nefando*-aren eta gerrarako materiala ekoizten duten euskal enpresen artean egon daitezkeen harremanez. Horrelako buru-afonia arraroa da bozeramaile batengan, baina oraingok arraragoa da bere Gobernuak Interpolekin zerkusirik ez duela eta armamentuen negozioak Euskadiko familia askori etekinak ekarzen dizkiola gehitzea...

ANTONIO GALA

### ● egin

#### Elkarrizketa

Nolabait, atzoko elkarrizketa halako elkar onartze bat

da, baina horrek ez du zertan esan nahi HBk monarkia onartzen duenik, ez eta Juan Carlosek bat egiten duenik postulatutako abertzaleekin. Baina hitz egiteko gaitasuna bada, laburki eta tarte ideologikoa gordez bada ere.

EDITORIALA

### ● LAVANGUARDIA

#### Bundesbank-ek bere interes tipoak jaitsi zituen

Alemaniako banku zentralaren erabakian hainbat fak-

torek izan dute zerikusia. Horien artean azpimarratzekoak dira apirilaren eta ekainaren arteko infrazio txikia, diru hazkunderen normalizazioa, atzeraldia bere puntu baxuenera iritsi dela eta ziur jakitea azken horrek ez duela eraginik izango markoaren kotizazioan. Bundesbankek ez du esan zer-nolako eragina izan duen ez hurrengo astean Japonian egingo den G-7ren bilarek ez, batez ere, aurreneko hiruhilabetekoan ehuneko hirukoa baino handiagoa izan den BP Garen jaitsierak, nahiz eta pentsatzenko den eragina izan dutela, eta handia gainera.

EDITORIALA

## Dura Lex

LUZUEN ETXEZHARRETA



JEAN Philippe Casabonne etxera itzultzen da. Sei urte kartzelara kondenatu zuen Espainiako Justiziak: sei urteatarik aste bat baino gutiago barkatu diote burutik buru egon baita espexean.

Sustenguko Komite ugariak poztien dira, EPSK eta Amintsiaren Aldeko Batzordeak aterabide negoziatua Euskal Herriaren baketzeko aldarrikatuko dute. Badu bultza bat entzuten dela errepika hori. Badu bultza handiagoa estaturen ordezkarien hitzak badazkigula: terrorismoan sartzen dute Casabonnen preso atxekitzea eta ez du barkamen den mendekorik itxaroterik.

Sindikatu, alderdi politikoa eta beste hainbeste pertsona soilek Casabonne sinbolotzat zuten: elkartasun delituaz akusatua zen. Eta ez du amor eman gure munduko handiki, botereen esku makilek amor emateko kontseilua ate ziotik murmurikatzen ziotelarik. Ukatu behar zuten publikoki borroka armaturen erabilera, barkamena eskatuz.

Euskal presoekin bururaino bere elkartasuna agertu du Casabonnek. Ez zen euskalduna baina Euskal Herriak libertatearen eredu zerbitz eskaintzen zion. Bere hitzak azkenean entzungo ditugu. Maitasuna bere gaitzatsun galduren inguruan nola senditu ote du?

Estatu indarrek, hauen ordezkari Mitterand eta bere aholkulariek alegia ez ulertua egin dute. Ez konprenitu nahiz Casabonnen duintasuneko jarrera buruzburuka odoltsu eta inoiztasua hazi du. Lastoa eta bihiaren artean ez du aukeratu, lege gogorrenen aurpegia baizik eskainiz. Pascalek zion beren burua hiltzera uzten duten lekukoetan baita baizik ez zuela sinestean. Hiltzaileak nabala eskuan daude lur hegaletan lekukoetan gal arazten. Hauen gaitz bizi dira oraingok herriak. Apatasunez baizik ez daiteke mintza Pabeko ikasle gazte lekukoaz.

## LUZENDARIARI

### Eskerririk asko Bergaratik

Mila esker Ekaitz (13), Mikel (14), Izaro (17), Eneko (18), Haritz (19) eta Juan Antonio (24). Mila esker Xaiton. Mila esker ekainaren 27ko goiza Bergarako pilotalekuan sufritzeko prestatu zinetenei beste gauza batzuk ahaztu (bataio, bazkari, Urraki, etab.). Mila esker herria zaindaz irratietatik entzuten gelditu zineteni. Mila esker gazteei bere oihu eta animoengatik. Mila esker arratsaldean gauerako prestatketak egiten aritu zirenei. Mila esker, *Kutxa, Gepe*, eta hainbat herri Txapelketa honi etxi eta indarra emateagatik XXVI urtetan. Mila esker irratia eta egunkarietako langileei Txapelketa honek merzi duen zabal-kundea emateagatik. Azkenik *ehan mila esker* Usurbilgo jendea, ikusirik galdua zeukatela ere animatzen jarraitu zutelako eta baiptar Amezketaari eskeinutako abestiengatik. ho-

rrelako laguntzaileekin berriro ere herri hori oso aurrera iritsiko delako.

Eta azkenik mila esker hemen aipatu gabe gelditu direnei beraian beraien moduan lagundu dutenei ekainaren 27 hau gure Herriarentzat gogoangarri egiteagatik. Amezketa pilotazale guztiak egun hau ere beti gogoan edukiko dute 1989ko maiatzaren 7a bezalaxe.

L.A.L.

Bergara (Gipuzkoa)

## GAIA JARRITA



### Garaikoetxea

Hauteskundeak pasa dira ta boto mordoak aldegin, nonbait herriak nahi duen eran ez zenioten hitzegin. Garaiko jauna gaitzak bete lan badaukazu zurekin, urteetako zuen ametsa amets gelditu ez dedin.

JOSE LUIS GORROTXATEGI

## Egunkaria

Batzorde: Pabildela: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

ODJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaris: JNAKI URJA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZUEN ETXEZHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitate: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitate: PUBLICITAS

Capitan Haya 1.2.a 28020 Madrid / # 555 11 01 / Faxa: 51 556 29 25

NELBIDEAK

Erredakzio eta Tallerrak: ANITZA S.A. Industriadelac 01-02 Pabildok / 20160 Lasarte-Oña / # 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egotez soziala, Publizitate eta Administrazioak: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / # 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1. Leher / 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irritzidorea) / 31011 Iruñea / # 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaiak: Barroeta Aizdorar, 2-1. eskuna / 48002 Bilbo / # 423 90 62 / Faxa: 423 94 40

Lapurdik / Nafarroa Behereak / Zuberoa: 503 Posta kutsaila, / 64105 Baiona / # 59 59 25 75 / Faxa: 59 25 75 11